

txalaparta

# EUSKAL MATXINADA

GENEALOGIA ETA  
EGUNGO EZTABAIDAK

ANDONI OLARIAGA



## SAIAKERA KOADERNOA

ISBN: 978-84-18252-23-5

ORRIALDEAK: 112

FORMATUA: 12 x 19

PREZIOA: 11,00 €

Iparrorratza saila 1

Liburuko esaldi bat:

“Denbora daramagu ataka berean bueltaka. Abertzaletasunik gabeko independentismoa gorringorik gabeko arrautza da, imposible metafisiko bat: identitatea ez baita gainditzen, bai, ordea, berridazten, zabalagoa egiten, gure historiaren konplexutasuna kontuan hartuz egin ere. Zeri deituko diogu, hortaz, euskal nazioa XXI. mende honetan? Nolako erantzuna, halako herria”.

# EUSKAL MATXINADA

## GENEALOGIAK ETA EGUNGO EZTABAIDAK

Andoni Olariaga

2020  
IRAILA

Itziar Aizpuruak «euskal udaberria» deitu zion 68ko belaunaldiak bizitako garaia. Euskal matxinadaren sorrerako belaunaldiarentzat eztabaida guztiak egiteko zeuden: herria eta hizkuntza, emantzipazio nazionala ala klase borroka, euskalduntasun berria, iraultza ala erreforma... Dena egiteko, eztabaidatzeko eta eraikitzeko. Mundua eta gizartea pixkana aldatzen joan ziren hurrengo urteetan, eta, bidean, intuizioak moldatu beharra egon da. Saiakera zoli honek gure herrian gertatu diren egiturazko aldaketa politiko, filosofiko eta kulturalak interpretatzen ditu, baita azken hamarkadan sortu diren erronkak, mugimendu eraldatzaileak eta subjektibazio modu berriak ere. Eta, hasi eta buka, irakurleak galderak jasoko ditu; tartean, hau: Asmatuko ote dugu, historiako une ezegonkor honetan, XXI. mendeko euskal matxinada berria abiarazten?

Iparrorratza sailari hasiera ematen dio testu honek.



### ANDONI OLARIAGA AZKARATE

(Berriz, 1984). Filosofian doktorea da. Jon Jimenezekin batera *Modernitatearen auziaz* (Jakin, 2009) idatzi zuen. UEUko Filosofia Sailburua izan zen bi urtez, eta «EHko pentsamendu kritikoa XX-XXI. mendeetan» graduondokoa sustatu eta irakasle jardun zuen. Lapiko Kritikoa kolektiboko kide eta *hAUSnART* aldizkariko zuzendaria izan da. *Euskal Herriko pentsamenduaren gida* (UEU, 2012) liburuaren koordinatzaile eta idazleetako bat ere bada. *Independentzia helburu* (Txalaparta, 2015) idatzi du beste autore batzuekin batera. Gaur egun, Iratzar fundazioan lan egiten du.



txalaparta

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus  
www.txalaparta.eus